

2021eko otsailaren 8ko Herriko Kontseiluaren txostena

Présents / Hor zirenak : Mmes DARGUY, DUHALDE, ECHEVERTZ, ETCHEVERRY, PEREZ, et MM. BARBIER, BARNECHE, BISCAY, GASTAMBIDE, HERNANDEZ, MONGABURE, OTEIZA, PARACHOU

Absents excusés / Ezin etorria jakinarazia zutenak : Virginie SABALOUÉ, Maité OXARANGO

Secrétaire de séance : Anne Marie DARGUY

1. 2020ko administrazio kontuen eta kudeaketa kontuen onespena

2020ko KONTU ADMINISTRATIBOA – HERRIKO ETXEA

Inbestimenduak

Gastuak	Aurreikusiak:	882 315,00
	Eginak:	651 163,69
	Egitekoak:	229 185,00
Irabaziak	Aurreikusiak:	882 315,00
	Eginak:	526 200,29
	Egitekoak:	73 450,00

Funtzionamendua

Gastuak	Aurreikusiak:	749 784,00
	Eginak:	407 122,62
	Egitekoak:	0,00
Irabaziak	Aurreikusiak:	749 784,00
	Eginak:	751 778,46
	Egitekoak:	0,00

Kontualdiaren hesterako emaitza

Inbestimenduak:	-124 963,40
Funtzionamendua:	344 655,84
Emaitza orokorra:	219 692,44

ZORRA ZERTAN DEN

2020 eta 2021eko maileguen interesen taula

Maileguak	Hastapeneko zenbatekoa	Hastapena/Bukaera	Oraino zor den kapitala	2020	2021
Trinketaren berritzea	250 000	2009/2024	71 295	17 919	17 660
2011ko inbestimendu batzuk	80 000	2011/2021	9 929	9 929	9 929
Apeztearen berritzea	100 000	2011/2026	43 354	7 570	7 506
Baserraldeko eraikuntzak	320 000	2014/2028	177 143	28 892	28 150
Apairi eta Gaztetxearen antolatzea	130 000	2017/2031	80 877	9 511	9 511
Apairi eta Gaztetxearen antolatzea	120 000	2017/2031	88 000	8 000	8 000
OROTARA			470 598	81 821	80 756

LTEP atxikitze hitzarmena

Etcheverry-Dezest lursaila 8 urte	128 661	2016/2023	42 141	14 720	14 551
Elissalde lursaila 20 urte	365 089	2013/2032	159 265	15 343	15 183
Beltzategia etxea 20 urte	244 618	2017/2037	194 730	14 654	14 508
OROTARA	738 368		396 136	44 717	44 242

2020ko ADMINISTRAZIO KONTUA - HILERRIAK

<u>Inbestimenduak</u>	Operaziorik ez	
<u>Funtzionamendua</u>		
Gastuak	Aurreikusiak:	2 610,00
	Eginak:	95,00
	Egitekoak:	0,00
Irabaziak	Aurreikusiak:	2 610,00
	Eginak:	1 868,47
	Egitekoak:	0,00
<u>Kontualdiaren hesterako emaitza</u>		
Inbestimenduak:		0,00
Funtzionamendua:		1 773,47
Emaitza orokorra:		1 773,47

Bi aurrekontuen kontu administratiboa eta kudeaketa kontua aho batez onartu dira

2. Inbestimendu gastuetarako mandatua emateko baimena 2021eko aurrekontua bozkatu artean

Lurralde Elkargoen Kode Nagusiko L. 1612-1 artikulua arabera, Herriko Kontseiluak baimena emanik, auzapezak inbestimendu gastuak abiatzen eta kitatzen ahal ditu eta mandatua eman, aitzineko kontualdian ireki maileguren laurdenaren neurrian, hots, 143 297,75 €. Baimen hori beharrezkoa da Herriko Etxeak urte hastapenean inbestimendu gastu berriei buru egin behar dienean, aurrekontua bozkatua izan arte.

Alabaina, bide bazterretako belarra mozteko tresna erosi behar da, eta 20 000 € kostako duela aurreikusia da.

Herriko kontseiluak onartu du

3. Herriko Etxearen berritze proiektua: operazioaren onartzea eta dirulaquntza galdea

2015ean Herriko Etxeak Helgarritasunerako Programatu Agenda plantan ezarri zuen, Herritarrei Zabalduriko Eraikinetako kudeatzaileek ekipamenduak helgarri egin ditzaten.

Geroztik, obra sinpleak egin dira Aiherrako eraikinak helgarri egiteko (Gaztetxea), eta programa berriak araudiaren arabera pentsatuak izan dira (jostalekua eta herriko kantina); Herriko Etxea falta zaigu, herriko ekipamendu agerikoena. Obra horien bidez eraikinak berritzen dira eta antolatzen, ezintasun bat dutenentzat helgarri eginez.

Etxearen hego aldean herriko etxearen sartzeari izanen da, agerikoa eta dinamikoa, plazaren erdian, eta dauden ekipamendu guztiak bideratuko eta lotuko ditu:

Gozategia eta errebotea (eskailerak eta elizako bidearen trebesatzea harri lauzadaz izanen dira), Xantrateko aparkalekua (errepidearen trebesatzea harri lauzadaz), etxe multzo berria, oinezkoen bidexkarekin.

Plazatto bat sortuko dugu: sartzea Herriko Etxetik goiti egingen da, beraz, ezintasun bat dutenek autoa hurbil uzten ahalko dute.

Barnean altxagailu bat izanen da eta eskailerak, baita ere Mugikortasun Urriko Pertsonendako helgarri diren komunak.

Dauden eraikinen berritzeak parada emanen du eraikin publikoen berritze energetikoa apailatzeko eta horren bidez kostuak murriztuko ditugu (berogailua, isolamendua, berinak, haizeztatze sistema).

Dirulaguntza galdatzeko dosierra finkatua da eta 393 014,00 € kostatu beharko luke (BEZa gabe).

Orain behar dugu frantses estatuari eta departamenduari ahal bezainbat dirulaguntza galdatu proiektu horren gauzatzeko. Estatuaren dirulaguntza % 40koa izan daiteke eta departamenduarena % 25ekoa, Euskal Elkargoaren laguntza finkoa 8 000 €-koa, eta Herriko Etxearen kapitala 129 556 €-koa.

Herriko kontseiluak onartu du

4. 2017-2020ko errepideetako obraren galdatzeko hitzarmen oinarri-emaielen gehigarria

Aiherrak eta Beskoitzek errepideetako obrak galdatzeko hitzarmen oinarri-emaiela egin zuten 2017an, 4 urterako.

Errepideen obretarako eskaera merkatua pentsatua zen 2017ko uztailaren 19tik (merkatua jakinarazi zen eguna) 2020ko abenduaren 31ra.

Gehigarri bat sartzeko proposamena egin da merkatu publikoaren obratze epemuga aldatzeko, eta merkatua berriz abiatzeko baldintza aski onetan, baita ere Herriko Etxeak urgentziei ihardukitzeko.

Proposatu da oraingo denboraldia, hots, 4. denboraldia, 2020ko urtarrilaren 1a eta 2021eko uztailaren 18a arteko denboraldia izatea.

Herriko kontseiluak onartu du

5. Hiriko Garraioen Plan proiektuari buruz ikusmoldea

Jaun auzapezak Hiriko Garraioen Plana aurkeztu du. Plan hori Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuak du finkatu 2020ko otsailean, puntu hauek zehaztuz:

- Dokumentu hori zein araudiren arabera da;
- Lan metodologia;
- Dokumentu horretan agerian ezarri jokagaiak (trantsizioa, kohesioa eta entrenatzea);
- Dagokion ekintza plana;

Ikus laburbilduma loturik den dokumentuan.

Jatorrizko dokumentuaz jabetzea izigarri zaila da hautetsi batentzat.

Araudiaren arabera plan hori xede onez eginga da, eta heldu den 10 urteetan beharko da garatu.

Baina Herriko Kontseiluak puntu zenbait agerian utzi ditu: aurkezpen dokumentuan agertzen da ez dela lurralde guzietan zabaldua; ekintza aski baliagarririk ez da, edo guti; eskolako haurrentzat eta burasoentzat segurtasunari buruzko sentsibilizazio ekintza bat prestatzeko beharra bada.

Sindikatuak azken bi urteetan eraman ekintzak azpimarratuak dira:

- Hazparnealdera heltzen diren hiriarteko garraio-ibilbideak azkartzeko beharra;
- Bizikleta elektrikoak eskuragarri egitea lurralde osoan;
- ASF eta SNCFrekin finkatu partaidetza;

- Ipar Euskal Herriko zentro batean baino gehiagotan proposatu joan-jinkari zerbitzua.

Halere, damugarri da sindikatuak guti komunikatu baitu bere ekintzei buruz, eta oroitarazten dugu galdearen araberako garraioa plantan ezartzea beharrezkoa dela.

Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuak ez du finantza mailako laguntza handirik eman herriko obralaritzaren bidez azpiegituren muntatzeko eta garraio kolektiboaren garatzeko (autokidetzak guneak, alta beharrezkoak dira).

Aipatu da ere bizikleta bideak tarrapatan egin direla, ez direla segurtasun neurrien araberakoak, eta bizikletan ibiltzera ez dutela pusatzen.

Aiherrako Herriko Kontseiluak ez du bozkatu Hiriko Garraioen Plan hori.

6. Beltzagitea etxearen egoera juridikoaren bilakaera - LTEP

Herriko Kontseiluak bozkatu behar du etxearen egoera juridikoaren bilakaera; LTEPk bi proposamen egin ditu. Bilakaera hori beharrezkoa bihurtu da segurtasun eta sanotasun obrak egiteko presarengatik.

1 – Etxea herriko ondarean atxikitzea, 3 posibilitaterekin:

A – Ipar Euskal Herriko LTEPk obrak eginen ditu: erori den zoladura kenduko du, etxearen teilatua kenduko du edo berdin arrunt deseginen ezkerreko aitzinaldean (proiektuan teilatua atxikitzen denez ala ez). LTEPk egin gastuak operazioaren hornidurara erakarriko dira, eta faktura eginen digute urteroko atxikitzeen kariatara.

B – Laster nahi badugu hasi proiektua gauzatzen, enfiteksi-kontratu alderantzikatua egin dezakegu segurtasun obrak eta eraikinaren zaharberritzea hasteko. Karia horretara, LTEPren lur-erreserbatzeak segituko du eta urte guzietan ordainduko ditugu urte-sariak eta erreserba gastuak.

C – Eraikin hori erosteko eta gure proiektua abiatzeko xedea dugu: etxearen gibelera saltzea abiatuko dugu, eta gibelera saltzea erabaki ondoan (Herriko Etxea eta LTEP), egiazko agiria izenpetu artean, etxearen segurtasun obrak hasteko baimena ukaiten ahalko dugu.

2 – Eraikinaren berriz saltzea proiektu eramaile bati (hautu hori esplikatzen beharko da, desjabetze prozedura plantan ezarri baikenuen eraikinaren erosteko):

Gibelera saltzea galdatzekoa eta segurtasun obren hastea LTEPren baimenarekin, Herriko Etxeak eta LTEPk elkarrekin erabakiak hartu ondoan.

Herriko Etxeak 1B aterabidea hautatu du.

Hautua Herriko Etxetik kanpoko lan taldeari jakinaraziko zaio ondoko bilkuran, baita ere LTEPri.

7. 5G-ri buruzko gogoeta

Testuingurua

Abenduaren 21eko Herriko Kontseiluan, erabaki zen teknologia berri horren ondorioei buruz informazioa biltzea eta gogoetatzea.

Zenbait herriko jadanik egin dute eta Euskal Elkargoak bere iritzia laster jakinarazi behar luke.

Guk ere, Aiherran, gure iritzia emateko asmoa dugu.

Herriko elkarte bat arazoari interesatu zaio, bilkura publiko bat antolatu du eta 200 bat izenpetze bildu, instalazio horri buruz luzamen bat galdeginez.

Testuaren mamia

2G, 3G eta 4G teknologien ondotik, hona non 5G sakelako telefono sarea agertu den.

ARCEP aginpideak (bereziki komunikazio elektronikoak arautzen dituen aginpidea) dio orain arteko sareek trafikoaren goratzea jasanik ere osasun-larrialdian, gaur egun eskuragarri diren 14 frekuentziek ez dutela bermatuko trafikoaren goratze etengabea.

5Gk emaria handituko du, berehalakoa eta fidagarria izanen da osagarriaren, garraioen eta industriaren alorretan.

Horretarako, operadoreek zutabeak edo hargailuak ezarri beharko dituzte, lehenik hiriguneetan baita ere hiriguneetatik kanpo hemendik 2030eko urtea arte.

Anses agentziak (Elikaduraren, ingurumenaren eta lanaren osasun-segurtasunerako agentzia nazionala) agerrarazi du bere webgune ofizialean (2020ko ekainaren 23an eguneratua) "frekuentzia banden ondorio biologikoei eta sanitarioei buruzko datuak falta direla, edo ez dela daturik."

Anses agentziako adituen txostenak "5G frekuentzia-banda berriengatik gerta daitezkeen ondorio biologiko edo sanitarioei buruz izanen dira", baina agentziak zehazten du aditu zientifikoek lan ardatz nagusiak aztertuko dituztela hemendik 2021eko bukaera arte.

"Numerikoaren garapenaren laguntzea ingurumenaren gaineko ondorioak ttipitzeko" deitu PT12.1 proposamenean, **Klimaren aldeko herritar itunak** gomendatzen du "zerbitzuen ekodiseinuaren egiteko 5Gren abantailak eta alde txarrak estimatzea zuntz optikoaren aldean, 5Gren garapenerako baimenak eman aitzin eta ez ondotik; baita ere ingurumenaren gainean ondorio guttien duen aterabidearen erabiltzen irakastea/gomendatzea". Itunak nahi luke "5Gren plantan ezartzea luzatua izan dadin 5Gk osasunaren eta klimaren gainean dituen ondorioak jakin arte".

Aiherran, beste lekuetan bezala, frekuentzia banda berrietan uhin elektromagnetikoak igortzen dituzten antenen instalatzeko proiektuak herritarrak kezkatzen ditu, bereziki ondorio biologikoei eta sanitarioei buruzko ikerketa guziak ez baitira bururatuak.

Herriko Kontseiluak, eztabaidatu ondoan, 5Gren hedapena luzatzea bozkatu du.

5Gren hedapenaren luzamena

Zuntz optikoaren instalazio obrak bete-betean dira baserrialdean, berezkoak dituzten akats guziekin. Obra horiei esker Biziki Banda Zabaleko internet ukaitea da helburua. Funtsezkoa da gure lurraldeak ekonomiaren, jendartearen, hezkuntzaren eta kulturaren alorrean gara daitezen.

2G, 3G edo 4G teknologien bidez emeki-emeki eremu zuriak estaltzen dira, nahiz eta operadoreek ARCEPek zehaztu beren egitekoa ez bete.

- Kontuan hartuz hobe dela 5G hedatu aitzin ANSESEko adituen ikerketen emaitzen beha egotea, ikusteko ondorio biologikorik eta sanitarioik ba ote den 5G frekuentzia banda berriengatik,
 - Kontuan hartuz hobe dela ADEMERen ikerketen emaitzaren beha egotea, ikusteko zer ondorio energetiko eta klimatiko sortzen dituen 5Gk,
 - Kontuan hartuz, zerbitzuen ekodiseinuaren egiteko, funtsezkoa dela 5Gren abantailak eta alde txarrak estimatzea zuntz optikoaren aldean,
 - Kontuan hartuz beharrezkoa dela lurraldeko sarea manera zuzenean estalia izatea dauden teknologien bidez sare berriak hedatu aitzin, haustura numerikoa larriagotu baitezake,
- Eztabaidatu eta deliberatu ondoan,

JAKINARAZI DU:

- edozein gisaz zuhurtziazko neurria dela nagusi osasun publikoari dagokionaz, baita ere ingurumenaren eta klimaren gainean dituen ondorioei dagokionaz,
- teknologia zaharren (3G eta 4G) bridatzearen kontra borrokatzea beharrezkoa dela, baita ere teknologien zaharkitze programatuaren kontra, herritarrak gaitzitzen baititu,
- ez duela nahi 5G antenarik instalatua izan dadin Aiherran.

Herriko Kontseiluak 5Gren hedapenerako luzamena GALDATU DU.

8. Zaintzarako Herriko Planaren onartzea

Herriko Etxea hasi da Zaintzarako Herriko Planaren apailatzen pertsonen eta ontasunen babesa eta segurtasuna bermatzeko ohiz kanpoko gertakari bat gertatuz gero. Plan hori eraginkorra izan dadin, Predicten laguntzarekin egin da eta Herriko Etxeko lantaldearekin hitzarturik.

Dokumentu hori jadanik erabilgarria da eta Herriko Etxean irakur daiteke. 2004ko agorrilaren 13ko segurtasun zibilaren modernizatze legearen neurrien eta haren aplikazio dekretuen arabera da. Prebentzio ekintzen kariatara apailatu argibide dokumentuak barne hartzen ditu eta osatzen. Zaintzarako Herriko Planak herritarren babes orokorra bermatzen duen ORSEC plana osatzen du.

Zaintzarako Herriko Planaren dokumentu bat baino gehiago bada:

- Liburuxka erabilgarria, non atzematen baitira larrialdiaren arabera egitekoak diren zaintzarako herriko ekintzak.
- Uholde ekintzen mapa: herrian uholdeak gertatuz gero plantan ezarri behar diren ekintzak eta antolaketa.

Eta beste dokumentu bat ere gehitu daiteke:

- Arrisku handienei buruzko argibide dokumentua.

Herriko Kontseiluak Zaintzarako Herriko Plana onartu du.

Gainerako gaiak

- Gabarrus anderearen erretreta oparia
Hazparnealdeko herri guzietan hala erabakirik, Herriko Kontseiluak onartu du Herriko Etxeak parte har dezan herriko diruzaina zen Gabarrus anderearen oparian.
- Jaun auzapezak argibideak eman ditu Hazparnealdeko erreferente eginkizuna uzten baitu, denbora eskasarengatik.
- Hegazti gripea: prefetari gutuna.
Jaun auzapezak aipatu du jaun prefetari igorri dion gutuna: deitoratu du ahateak sistematikoki hiltzeko politika, eta galdatu du aginpide publikoek esperientzia politika egin dezaten Bidaxuneko Kriaxera tokiko ahateekin.

Bilkura 22:15ean bururatu da

Auzapeza
Arño Gastambide